

# BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2016

## BASQUE - LV2

MARDI 21 JUIN 2016

Séries **ES/S** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Série **L** Langue vivante obligatoire (LVO) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **4**

Série **L** LVO et langue vivante approfondie (LVA) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **8**

Séries **ST2S** et **STMG** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Séries **STI2D**, **STD2A**, **STL** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – épreuve facultative

### ATTENTION

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa série :

Série L (LVA Y COMPRIS) : questionnaire page 3/4

Séries ES/S/STMG/ST2S/STI2D/STD2A/STL : questionnaire page 4/4

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

*Barème appliqué pour la correction.*

<i>Compréhension</i>	<i>10 points</i>
<i>Expression personnelle</i>	<i>10 points</i>

Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.

Diruak ez duela zoriona ekartzen edo zoriona ez duela diruak ekartzen irakatsi zioten. Hori duk, hori, esaldi ederra, Panpi ! Aitaren nagusiaren diruak, segurik, ez dik gure zoriona egin...

5 Panpik zuzenbidea ikasi nahi zuen. Abokatu edo epaile, berdin zitzaion zer ofizio hartu, baina errespetua eta hilabetsari ona ekarriko zizkion lan bat nahi zuen. Zuzenbide fakultatean izena emateko eta ikasturtean zehar lo egin eta jan ahal izateko, udan lan egitea erabaki zuen. Etxetik urrundu zen, ogibide baten bila. Ez zuen bere herrian enoatu nahi. Han ez zuen lan handirik aurkituko. Udan, neguan baino herri hilagoa izaten zen oraino. Mediterraneo aldera abiatu zen, hondartza 10 bazterreko jatetxe zenbaitetan zerbitzari gisa lan egiteko.

Itsasotik urrun bizi zen gazte batentzat, jostetarako eta bestarako bide guti eskaintzen zuen herrian bizi zen gazte batentzat, gaitzeko aldaketa izan zen Mediterraneo bazterreko turista hazkuntza erraldoi batean uda pasatzea. Ez zen menturaz turistaren bazkatzea udaren iragaiteko molderik goxoena, baina, ideiak 15 aldatzeko balio zion. Ez, ez zen beti goxo udatarren bazkatzea. Goiz osoa, eta arratsaldea ere, luze-luzea etzanik, beren txitxi puskak eguzkipean erretzen, ilunabarretan pizza batzuen inguruan ezdeuskeria batengatik afari guzia irri karkailaka iragan eta gauaz, diskotekan, bi dantzen artetik whisky bat hurrupatzen zuten turista haiekin pazientzia ere behar zela laster ulertu zuen. Jatetxe guzia 20 mukuru bete zela ikusirik ere, beti baziren, afaria noiz ekarriko ote zieten etsiturik, marmarrean hasten zitzaizkionak Panpiri, mahai batetik sukaldera, sukaldetik bertze mahai batera, lasterka, bi jauziz, denen zoriona ezin eginez, kostarik ibiltzen zen Panpi gaiztoa. Beti baziren, aire putinta batean, harrokeria aski begitartean "O ! Ene haragia sobera errea da !" edo "Melo honek ez du gustu izpirik ! Ekariezadazu 25 beste bat !" edo bertze edozein erasiaren egiteko ausardia bazuten afaltiarrek. Eta sukaldariari zuzenduak ziren laidoak ere Panpik biltzen zituen, zerbitzari hasi berriari botatzen zizkieten piko guzien gainera.

Eta gainera, lan hark esker txarra zuen. Nagusi pitoa zuen, haren gaztetasunaz, inozentziaz ederki baliatzen zena. Inarrosaldi franko ematen zion eta lan oren anitz; 30 oren anitz eta pausa guti. Eta hilabete hondarreko soldata, idorrean, deklaratu gabe eta ttipiñoa. Absolutuan, bazen diru puska polita. Baina langileen izerdiari, estresari eta apaltasunari esker irabazi diru hartarik ontsa zati ttipia itzultzen zien Panpiri eta gainerateko lankideei. Goizeko 11n hasi eta gauerdiraino lanean, artean pausa labur bat baizik ez ukanik ere, isil-isila egon behar. Panpik hobe zuen ahorik ez irekitzea, 35 bere eskubideak zein ziren jakitera ez ahalegintzea eta, jakinik ere, ez haien defentsan aritzea.

-Ez bahaiz kontent, aski duk lekutzea. Atea hortxetan duk !

Eneko Bidegain, Mahatsaren begia, 2005 (54-55.or)

**QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SÉRIE L  
LVO & LVA**

(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

**I. ULERMENA : (10 puntu)**

1. Zer ikasketa mota egin nahi zuen Panpik ?
2. Zer egitea erabaki zuen bere ikasketak pagatzeko ?
3. Nora abiatu zen ? Zergatik ?
4. Zer lan mota egitera abiatu zen ?
5. Zer dakigu Panpiren sorteriaz ? Esaldiak bil itzazu.
6. Zer egiten dute turistek bakantza denboran ?
7. Nolako lan baldintzak ditu Panpik ?
8. Zergatik Panpi ez da nagusiari zerbait erraitera ausartzen ?

**Question uniquement à l'attention des candidats de la série L (LVA)**

9. "Aitaren nagusiaren diruak, segurik, ez dik gure zoriona egin..." (2. 3. l) Nola ulertzen duzu esaldi hau ?

**II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)**

**Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.**

**Pour les candidats de la série L – LVO :**

1. Gustatuko litzaizuke udarako zure herritik urrun lan egitera joatea ? Zergatik ?
2. Panpik gurasoei mediterraneo eskualdetik berrien emateko bidaliko dien gutuna idatz ezazu hamar bat lerrotan.

**Pour les candidats de la série L – LVA :**

1. Gustatuko litzaizuke udarako zure herritik urrun lan egitera joatea ? Zergatik ?
2. Panpik gurasoei mediterraneo eskualdetik berrien emateko bidaliko dien gutuna idatz ezazu hamar bat lerrotan.
3. "Diruak ez duela zoriona ekartzen edo zoriona ez duela diruak ekartzen irakatsi zioten." Zer diozu hortaz ? Zure iritzia gara ezazu argudioak emanaz.

**QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DES SÉRIES ES, S,  
STMG, STI2D, STD2A, STL et ST2S**

**I. ULERMENA : (10 puntu)**

1. Zer ikasketa mota egin nahi zuen Panpik ?
2. Zer egitea erabaki zuen bere ikasketak pagatzeko ?
3. Nora abiatu zen ? Zergatik ?
4. Zer lan mota egitera abiatu zen ?
5. Zer dakigu Panpiren sorterriaz ? Esaldiak bil itzazu.
6. Zer egiten dute turistek bakantza denboran ?
7. Nolako lan baldintzak ditu Panpik ?

**II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)**

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

1. Gustatuko litzazuke udarako zure herritik urrun lan egitera joatea ? Zergatik ?
2. Panpik gurasoei mediterraneo eskualdetik berrien emateko bidaliko dien gutuna idatz ezazu hamar bat lerrotan.